



Gure ondare publikoak berreskuratzen

Herritarren kolektiboak mobilizatuko dira Gobernuak immatrikulazioen arloan egindako ez-betetzeak salatzeko.

Gobernuko presidentegaiak, inbestidura-hitzaldian, hitz eman zuen legegintza-aldaketa egokiak egingo zituela hierarkia katolikoak immatrikulatutako ondasunak berreskuratzea errazteko. PSOE – Unidas Podemos koalizio-gobernuaren akordioaren 5.11 puntuan jasotako testua zen. Herritarrek ondare publikoaren alde egindako lan handiaren aitopena argia zen. Bazirudien zerbait alda zitekeela.

Baina, aldi berean, Gobernuaren eta Hierarkiaren arteko kontaktu opakuak kontrako norabidean zihoazen. Immatrikulatutako ondasunei buruzko informazioa izkutua mantendu zuten.

Eliza katolikoak 1998 eta 2015 artean immatrikulatutako ondasunen inbentarioa zabaltzea arrakasta handia izan zen Recuperandon biltzen diren erakundeentzat; baina zerrenda partziala zen (ez ditu barne hartzen 1946tik 1998ra immatrikulatutako ondasunak), ez ditu ohar sinpleak eskaintzen, ezinbestekoak immatrikulatutakoa identifikatu eta ezagutzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1998tik hona 88 immatrikulazio-ondasun (dakigunen %16,6) egon zirela jakiteaz gain, badakigu 1978tik egun horretara arte askoz gehiago egon zirela, zehazki beste 530 (dakigun Inmatrikulazioen % 83,3). Hau da, 1978tik EAEn immatrikulatutako 618 ondasun guztira.

Nafarroan berriz inmatirkulatutako ondasunak 2952 izan dira. Horietatik Aznarren legearekin (1998tik Aurrera) “bakarrik” 900 inguru. Horietatik kultuko egoitzak 981 eta beste guztiak lurrak, etxeak, pisuak,...

Koalizio-gobernuak sekulako ondare-eskandalua piztu du, herritarrekiko konpromiso elektoral eta programatikoa nabarmenki hautsi baitu. Gobernuak ez dirudi immatrikulazioak baliogabetzeko prest dagoenik, eta partikularrak eta udalak bere kasa utzi ditu, prozesu judizial luze eta garestietan auzitan jar ditzaten. Gobernuaren uko egite hori koldarkeria historikotik baino ezin da azaldu, hierarkia katolikoaren pribilegio sekularrak geldiarazteko.

Hauteskundeetan emandako hitza bete beharrean, Gobernuak opakutasunik handienez negoziatu du gotzainekin Konstituzioaren legezketasunari larriki eragiten dion estatu-arazo bat gezurretan ateratzea. Milaka lursail, plaza, hilerri, basiliza, etxebizitza, baratze eta monumentuentzako amnistia erregistrala da, eta Elizaren esku jarraituko dute, nahiz eta jabetzari buruzko dokumentu-frogarik aurkeztu ez.

Immatrikulazioak erabat deusezak dira, Espainiako Konstituzioa urratzen dutelako. Gobernuak deuseztat jo behar ditu 206. artikulua babesean elizaren autozertifikazio soilarekin egindako immatrikulazio guztiak. Hortik aurrera, apezpikuek inskribatu ahal izango lituzkete, erregistroko abantailarik gabe, beren jabetzakoak direla modu frogagarrian egiaztatzen duten ondasunak. Gainera, garrantzi kultural berezia duten ondasunak, hala nola Kordobako Meskita, Aragoiko altxor mudejarra edo Asturiasko arte prerromanikoa, jabetza publikora atxiki behar dira, herritar guztienak direlako.

Gure ordezkari publikoak ez badira egon bere konpromiso historikoaren mailan, Berreskuratzen eta koordinatzen dituen erakunde guzti-guztiak egongo dira. Horregatik, mobilizazio-deialdiak egiten jarraituko dugu egoera hori salatzeko, indar politikoei eta gobernuari hartutako konpromisoak bete ditzatela eskatzeko.